

Aretxabaletako Udalean eta Udalerrian Euskeraren Erabilera Normalizatzeko Arauak ematen dituen Udal Ordenantza.

1996ko Ekainaren 10ean izandako Osoko Bilkuran, besteen artean, erabaki zen Aretxabaletako Udalean eta Udalerrian, Euskeraren Erabilera Normalizatzeko Arauak ematen dituen Udal Ordenantza behin betikoz onartzea, 30 eta 32. artikulua aldatuz. Aldatzen diren artikulua honela idatzita geratzen dira:

«30. Artikulua.

Azaroaren 24eko 10/1982 Oinarrizko Legearen 26. eta 27. artikuluetan xedatutakoaren arabera, euskara gizarte-esparru guztietan eta publizitatean erabili dadin eta orohar, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin, neurri egokiak hartzea dagokie botere publikoei.

Hortaz Aretxabaletako Udalak, aipatu xedearen harian eta bere iharduketa eremuan, honako neurriok hartu eta beteraziko ditu:

1. Kultur, Kirol eta aisi elkarteei subentzioak ematerakoan, hizkuntzaren erizpidea ere kontutan hartuko da. Ondorioz, Aretxabaletako Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek, beren ihardun subentzionatuetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki eta gainerakoak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dutelarik. Era berean, ospakizun konkretuetan, bozgorailu bidez ematen dituzten mezuak ere, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dituzte.

Berbari hitzarmena sinatua duten haiek, bakoitzak bere gain hartu dituen hizkuntz konpromezuak bete beharko ditu.

Euskaraz eta gaztelaniaz egiten diren adierazpenetan, eta batez ere ahozkoetan, euskarazkoari eman beharko zaio lehentasuna, euskarazko adierazpenez jabe litezkeenak elebidunak baitira.

Subentzioak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da guzti hori, subentzio hartzaileek, subentzinoa jasoko badute, derrigorrez bete beharko dutelarik.

2. Udal instalazioak eta materialak erabili ahal izateko ere, aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dira. Udalak beraz, polikiroldegia, hesiak, oholtzak, zinema, lokalak eta zernahi udal instalazio eta material erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntz baldintza horren berri emango die interesatuei, eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat izango da, hizkuntzari buruzkoa ere.

3. Herriko festetako barraketako idatzi, iragarki eta txartelak, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dira ezagutzera, eta beraz, barrakak muntatzeko baimena emateko baldintzen artean, hori ere azalduko da eta hori

jakineraziko zaie barrakariei, fidantza itzuli aurretik, baldintza hori bete den ala ez egiaztatu beharko delarik.

4. Publizitatearen gaineko zergaren kobrantzarako, Ordenantza Fiskala aplikatzen zaien errotuluei dagokionez, honako erizpideen arabera emango dizkie dirulaguntzak Udalak, izaera ofizialekoak ez diren merkatal eta zernahi motako entitateei.

- 4.a. Euskara hutsean idatzitako errotulua jartzen duenari, errotuluaren %40a ordainduko zaio, 15.000 pezetetako mugapean.

-4b. Errotulu elebiduna jartzen duenari errotuluaren zenbatekoaren %15a ordainduko zaio, 7.000 pezetetako mugapean.

-4.c. Erizpide hauek, publizitatearen gaineko udal zergaren kobrantzarako Ordenantza Fiskala aplikatzen zaien errotuluaren kasuan bakarrik erabiltzekoak direnez, errotuluaren izena, deitura, edo izen-deiturak besterik agertzen ez denean, ez da 4.a. eta 4.b. puntuetan xedatutako dirulaguntzarik emango.

-4.d. Establezimendua irekitzeko baimenaren jakinerazpenarekin batera, artikulua honetan xedatutako dirulaguntzen berri emango zaie interesatuei, baita beren errotuluak euskaraz jar ditzaten gomendioa egin ere.

5. Artikulu honetako lau puntuetan xedatutakoa betetzeko, dohain eskeiniko ditu Udalak bere Euskara Zerbitzu Teknikoaren itzulpen eta aholkularitza eta horrela jakineraziko zaie interesatuei.

32. Artikulua.

Ama hizkuntza euskara ez baizik gaztelania edo beste edozein hizkuntza duten hurrek euskara nekerik gabe ikasi ahal izan dezaten, bizitzako lehen urteak oso garrantzitsuak direla kontutan hartuz, haur jaio berriak dituzten gurasoei sistematikoki zuzenduko zaie Udala Haur-Eskola Zerbitzuaren berri emanaz, eta Zerbitzu horrek euskara ikasteari dagokionean, beren haurrentzat dituen alderdi onak jakin eraziz.

Era berean etxean eskuratu ezin dezaketen euskara horretaz jabe daitezen bideak errazteko xedez, euskararik ez dakiten nahiz euskara jakin hizkuntza hobetu nahi duten gurasoen seme-alabei, haurtzaindegiko zerbitzuez baliatzeagatik ordaintzea legokiekeen tasa akademikoaren %25aren subentzioa emango die Udalak. Horretarako, guraso horiek Leintz Udala Euskaltegian matrikulatu beharko dute, eta ikastaroa amaieran %60ko asistentzia ziurtatu beharko dute.

Aretxabaleta, 1996ko ekainak 18.-Juan Antonio Rodriguez Perez, Alkateak.